

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

2016ko azaroaren 16ko 533/2016 FORU AGINDUA, araudi erkidera bilduta dauden zergadunek sozieta-teen gaineko zergaren ordainketa zatikatuak egiteko erabili beharreko 202 eta 222 ereduak onartzen dituen.

Maiatzaren 13ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erki-
degoarekin sinatutako Ekonomia Ituna onartzen duenak, 14.
artikulan dio zerga helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan
duten subjektu pasiboentzat sozietateen gaineko zerga araudi
autonomoaren menpe dagoen zerga itundua dela.

Hala ere, artikulua horretan jasotakoaren arabera, aurreko
ekitaldian 7 milioi eurotik gorako eragiketa bolumena izan
duten subjektu pasiboek ekitaldi horretan beren eragiketa bolu-
menaren %75 edo gehiago lurralde erkidean egin badute,
lurralde horretako araudira eratutako dira lotuta.

Era berean, Ekonomia Itunak 21. artikuluan xedatzen du ez-
egoiliarren errentaren gaineko zerga tributua itundua dela, Esta-
tuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko
arau berberei jarraituta erregulatuko dena.

Aurrekoa hala izanik ere, atzerrian egoiliar diren pertsona
edo entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta
duten establezimendu iraunkorre lehenago aipatutako 14. arti-
kuluan jasotakoa aplikatuko zaie.

Azaroaren 27ko 27/2014 Legeak, Sozietateen gaineko Zer-
garenak, 40. artikuluan ezartzen duenez, apirilko, urriko eta
abenduko lehen 20 egunen barruan, zergadunek ordainketa
zatikatu bat egin beharko dute hilabete horietako lehen egu-
nean abian den zergaldiko likidazioaren kontura.

Era berean, xedapen horretan araututa daude ordainketa
zatikatuak egiteko epeak eta modalitateak.

Bestetik, martxoaren 5eko 5/2004 Legegintzako Errege De-
kretuak, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko
Legearen testu bategina onartzen duenak, 23. artikuluan 1.
apartatuan xedatzen duenez, errentak establezimendu iraunkor
bidez lortzen dituzten zerga horren zergadunak behartuta
egongo dira haren konturako ordainketa zatikatuak egitera,
sozietateen gaineko zergari lotutako entitateentzat ezarritako
modu berean.

Aipatutako legearen 38.3 artikulua obligazio bera ezartzen
du errentak esleitzeko araubidean dauden entitateentzat, baldin
eta entitate horiek, atzerrian eratuak izanik, lurralde espainia-
rrean egiten badute jarduera ekonomiko bat, eta jarduera hori,
dela bere osoan dela zati batean, edozein motatako instalazio
edo lantokietan garatzen bada ohikotasunez edo modu jarrai-
tuan, edo lurralde horretan jarduten bada entitatearen izenean
eta kontura, kontratatutako baimendutako agente baten bitartez.

Babes juridikoa antzekoa zelarik (orduko denbora eremura
egokitua) onartu zen abuztuaren 12ko 714/2010 Foru Agindua,

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ORDEN FORAL 533/2016, de 16 de noviembre, por la que se aprueban los modelos 202 y 222 de pagos fraccionados del impuesto sobre sociedades para aquellos contribuyentes sometidos a normativa común.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del
País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, esta-
blece en su artículo 14 que el Impuesto sobre Sociedades en un
tributo concertado de normativa autónoma para los sujetos
pasivos que tengan su domicilio fiscal en el País Vasco.

No obstante, los sujetos pasivos cuyo volumen de operacio-
nes en el ejercicio anterior hubiera excedido de 7 millones de
euros, y en dicho ejercicio hubieran realizado en territorio
común el 75 por 100 o más de su volumen de operaciones,
quedarán sometidos a la normativa de dicho territorio.

Del mismo modo, el artículo 21 del referido Concierto Eco-
nómico establece que el Impuesto sobre la Renta de no Resi-
dentes es un tributo concertado que se regirá por las mismas
normas sustantivas y formales que las establecidas en cada
momento por el Estado.

No obstante lo anterior, a los establecimientos permanentes
domiciliados en el País Vasco de personas o entidades residen-
tes en el extranjero, les será de aplicación lo dispuesto en el
anteriormente mencionado artículo 14.

El artículo 40 de la Ley 27/2014, de 27 de noviembre, del
Impuesto sobre Sociedades establece la obligación de los con-
tribuyentes de efectuar un pago fraccionado a cuenta de la liqui-
dación correspondiente al periodo impositivo que esté en curso
el día 1 de los meses de abril, octubre y diciembre, pago que se
efectuará en el plazo de los primeros 20 días de los citados
meses.

Asimismo, se regulan en dicho precepto los plazos y las
modalidades de cumplimiento del pago de dichos pagos
fraccionados.

Por su parte, el apartado 1 del artículo 23 del texto refun-
dido de la Ley del Impuesto sobre la Renta de no Residentes,
aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2004, de 5 de marzo,
dispone que los contribuyentes por este Impuesto que obtengan
rentas mediante establecimiento permanente, quedarán obliga-
dos a efectuar pagos fraccionados a cuenta del mismo en los
mismos términos que las entidades sujetas al Impuesto sobre
Sociedades.

El artículo 38.3 de la referida Ley establece la misma obli-
gación respecto las entidades en régimen de atribución de ren-
tas constituidas en el extranjero que realicen actividad econó-
mica en territorio español, y toda o parte de ésta se desarrolle,
de forma continuada o habitual, mediante instalaciones o luga-
res de trabajo de cualquier índole, o actúe en él a través de un
agente autorizado para contratar, en nombre y por cuenta de la
entidad.

Con un amparo jurídico semejante (adecuada a aquel
ámbito temporal) se aprobó la Orden Foral 714/2010, de 12 de

araudi erkidera bildutako subjektu pasiboek sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatuak egiteko erabili beharreko 202 eta 222 ereduak onartu zituen. Horrela geratu ziren onartuta adierazitako obligazioak Gipuzkoako foru esparruan bete zeko erabili beharreko eredu espezifikoak. Beraz, foru agindu hori izan da, onartu zenetik, araudi erkidera bildutako zergadunek ordainketa zatikatuak egiteko obligazioaren konplimendua arautu duena.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta inguruko zerga administrazioek eredu horien kudeaketan bereganatu duten eskarmentua aintzat hartuta, komenigarritzat jo da ereduak aurkezteko modua aldatzea eta alde zuzenetik prestatutako fitxategien aurkezpen telematikoen ordez formulario bidezko aurkezpena ezartzea. Formulario hori «Gipuzkoataria» tramite eta zerbitzu telematikoen atarian izango da eskura, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, <http://www.gipuzkoa.eus> helbide-tik sartuta.

Bide batez, aukera aprobetxatzen da foru aginduaren edukia eguneratzeko, bai araudiari egiten zaizkion aipamenetan, bai dolutako zenbait prezeptutan, eta bai arlo terminologikoan.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. *Sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuak egiteko 202 eta 222 ereduak onartzea.*

1. Onarturik geratzen da 202 ereduak, honela izendatu dena: «Sozietateen gaineko zerga. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrak, eta errentak esleitzen dituzten entitateak, atzerrian eratuak izanik lurralde espainiarrean ere badirenak). Ordainketa zatikatuak», foru agindu honek I. eranskin gisa ageri dena.

2. Onarturik geratzen da 222 ereduak, honela izendatu dena: «Sozietateen gaineko zerga. Bateratze fiskaleko araubidea. Ordainketa zatikatuak», foru agindu honetan II. eranskin gisa ageri dena.

2. artikulua. *202 ereduak aurkeztera behartuak.*

1. Hurrengo 2. eta 3. apartatuetan aipatzen diren zergadunak daude behartuta 202 ereduak erabiltzera, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 17. artikuluan ezarritakotik ondorioztatzen den ordainketa zatikatuak Gipuzkoako Foru Administrazioari egiteko erabiliko dute.

Dena den, ateratzen den emaitza negatiboa bada, ez da beharrezkoa izango 202 ereduak aurkeztea.

2. Sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuak egiteko erabili beharra dago 202 ereduak (ez-egoiliarren artean, establezimendu iraunkorrek, eta errentak esleitzen dituzten entitateek, atzerrian eratuak izanik lurralde espainiarrean ere badirenak, erabiliko dute). Ordainketa horiek egin beharra jasota ageri da Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 40. artikuluan, martxoaren 5eko 5/2004 Legegitzakako Errege Dekretu bidez onartutako Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legearen testu bategineko 23. eta 38.1 artikuluetan, eta Estatuko aurrekontu orokorreko buruzko legeek urte natural bakoitzerako ezartzen dituzten xedapenetan.

Aurrekoa hala izanik ere, talde fiskalen kasuan, kooperatiba taldeak barne, baldin eta talde horiek tributatzeko badute Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen VII. tituluko VI. kapituluaren eta azaroaren 6ko 1.345/1992 Errege Dekretuan, mozkin bateratuaren gaineko tributazioari buruzko xedapenak sozietate kooperatiben taldeei egokitzeko

agosto, por la que se aprueban los modelos 202 y 222 de pagos fraccionados del Impuesto sobre Sociedades para aquellos sujetos pasivos sometidos a normativa común, al objeto de aprobar los modelos específicos a utilizar en el ámbito foral guipuzcoano para cumplir con las obligaciones anteriormente señaladas. De esta manera, la citada orden foral ha venido regulando desde su aprobación el cumplimiento de la obligación de efectuar pagos fraccionados por parte de los contribuyentes sometidos a normativa común.

A la vista de la experiencia acumulada en la gestión de estos modelos por la Diputación Foral de Gipuzkoa y por las administraciones tributarias de nuestro entorno, se considera conveniente modificar la forma de presentación de los modelos, sustituyendo la presentación telemática de los ficheros confeccionados previamente por la presentación vía formulario, que estará disponible en el portal de servicios telemáticos «Gipuzkoataria» ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la cual se podrá acceder a través de la dirección <http://www.gipuzkoa.eus>.

Se aprovecha la ocasión para actualizar el contenido de la orden foral, tanto desde el punto de vista de las remisiones normativas y ajuste de determinados preceptos, como desde el punto de vista terminológico.

En su virtud

DISPONGO

Artículo 1. *Aprobación de los modelos 202 y 222 de pago fraccionado a cuenta del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes.*

1. Se aprueba el modelo 202 «Impuesto sobre Sociedades. Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes y entidades en régimen de atribución de rentas constituidas en el extranjero con presencia en territorio español). Pago fraccionado», que figura adjunto como anexo I a la presente Orden Foral.

2. Se aprueba el modelo 222 «Impuesto sobre Sociedades. Régimen de consolidación fiscal. Pago fraccionado», que figura adjunto como anexo II a la presente Orden Foral.

Artículo 2. *Obligados a presentar el modelo 202.*

1. El modelo 202 será utilizado por aquellos contribuyentes a que se refieren los apartados 2 y 3 siguientes, para efectuar a la Administración foral guipuzcoana el ingreso del pago fraccionado que resulte de lo establecido en el artículo 17 del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo.

No obstante, en caso de que dicho modelo arroje un resultado negativo, no existirá obligación de presentación del modelo 202.

2. El modelo 202 de pago fraccionado será de uso obligatorio para efectuar los pagos fraccionados del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes (establecimientos permanentes y entidades en régimen de atribución de rentas constituidas en el extranjero con presencia en territorio español) previstos en el artículo 40 de la Ley 27/2014, de 27 de noviembre, del Impuesto sobre Sociedades y en los artículos 23 y 38.1 del Texto Refundido de la Ley del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2004, de 5 de marzo, así como, respecto de cada año natural, en las disposiciones al efecto contenidas en las Leyes de Presupuestos Generales del Estado.

No obstante lo anterior, el modelo 202 de pago fraccionado no podrá ser utilizado por los grupos fiscales, incluidos los de cooperativas, que tributen por el régimen fiscal especial establecido en el capítulo VI del título VII de la Ley 27/2014, de 27 de noviembre, del Impuesto sobre Sociedades, y en el Real Decreto 1.345/1992, de 6 de noviembre, por el que se dictan

arauak ematekoan, ezarrita dagoen zerga araubide bereziaren arabera, ezingo dute 202 ereduia erabili ordainketa zatikatua egiteko, eta, horrelakoetan, 222 ereduia erabili beharko dute beti.

3. Espainiako interes ekonomikoko taldeak eta aldi baterako enpresa elkarteak bilduta badaude Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legeak VII. titularen II. kapituluan jasotzen duen araubide berezira, ez dira inolaz ere behartuta egongo 202 ereduia aurkeztera, partaidetza portzentaje osoa egoitza lurralde espainiarrean duten bazkide edo kide-ena denean.

3. artikulua. 222 ereduia aurkeztera behartuak.

1. Hurrengo 2. apartatuan aipatzen diren zergadunak daude behartuta 222 ereduia erabiltzera, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 20.2 artikuluan ezarritakotik ondorioztatzen den ordainketa zatikatua Gipuzkoako Foru Administrazioari egiteko erabiliko dute.

Dena den, ateratzen den emaitza negatiboa bada, ez da beharrezkoa izango 222 ereduia aurkeztea.

2. Azaroaren 27ko 27/2014 Legearen VII. tituluko VI. kapituluan eta azaroaren 6ko 1.345/1992 Errege Dekretuan ezarritako zerga araubide bereziaren arabera tributatzen duten talde fiskalek, kooperatiba taldeak barne, nahitaez erabili behar dute 222 ereduia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 40. artikuluan eta Estatuko aurrekontu orokorreko buruzko legeek urte natural bakoitzerako ezarritako xedapenetan aurreikusitako ordainketa zatikatuak egiteko.

4. artikulua. 202 eta 222 ereduak aurkezteko epea.

Urte natural bakoitzeko apiril, urri eta abenduaren lehen hogen egun naturalen barruan aurkeztu behar dira foru agindu honetan onartutako 202 eta 222 ereduak.

Epemugak egun baliogabeetan gertatuz gero, hurrengo lehen egun baliodunean amaituko dira.

5. artikulua. 202 eta 222 ereduak aurkezteko modalitateak eta ordaintzeko moduak.

1. Bide telematikoz baino ezingo dira aurkeztu foru agindu honetan onartutako 202 eta 222 ereduak.

Dagokion ereduaren formulario elektronikoa behar bezala betez eta transmitituz egingo da aurkezpen telematikoa. 202 eta 222 ereduaren formulario elektronikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan izango dira eskuragarri.

Formularioa eskuratzeko eta transmisioa egiteko, aintzat hartuko da urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zergen foru Administrazioarekiko harremanak bide elektroniko izateko obligazioa arautzen duenak, 2. eta 3. artikuluetan ezarritakoa.

Ondorio horietarako, 202 eta 222 ereduaren aurkezleek beren identitatea frogatu behar dute sinadura elektronikoko ziurtagiri baten bitartez edo, bestela, pasahitz operatibo bat erabiliz. Azken kasu horretan, pasahitz operatiboa eman behar da irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoaren erabilera arautzen duenak, 22. artikuluan xedatutakoari jarraituta eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren pasahitz operatiboa arautzen duen foru aginduaren arabera.

2. 202 eta 222 ereduetatik ondorioztatzen den ordainketa zatikatua aipatutako 1/2016 Foru Aginduak 4. artikuluan ezarri-

normas para la adaptación de las disposiciones que regulan la tributación sobre el beneficio consolidado a los grupos de sociedades cooperativas, respectivamente, los cuales habrán de utilizar, en todo caso, el modelo 222.

3. En ningún caso estarán obligadas a la presentación del modelo las agrupaciones de interés económico españolas y uniones temporales de empresas acogidas al régimen especial del capítulo II del título VII de la Ley 27/2014, de 27 de noviembre, del Impuesto sobre Sociedades, en las que el porcentaje de participación en las mismas, en su totalidad, corresponda a socios o miembros residentes en territorio español.

Artículo 3. Obligados a presentar el modelo 222.

1. El modelo 222 será utilizado por los contribuyentes a los que se refiere el apartado 2 siguiente, para efectuar a la Administración foral guipuzcoana el ingreso del pago fraccionado que resulte de lo establecido en el artículo 20, apartado dos, del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo.

No obstante, en caso de que dicho modelo arroje un resultado negativo, no existirá obligación de presentación del modelo 222.

2. El modelo 222 de pago fraccionado será de uso obligatorio para efectuar los pagos fraccionados del Impuesto sobre Sociedades previstos en el artículo 40 de la Ley 27/2014, de 27 de noviembre, del Impuesto sobre Sociedades, así como, respecto de cada año natural, en las disposiciones al efecto contenidas en las Leyes de Presupuestos Generales del Estado, por los grupos fiscales, incluidos los de cooperativas, que tributen por el régimen fiscal especial establecido en el capítulo VI del título VII de la Ley 27/2014, de 27 de noviembre, y en el Real Decreto 1.345/1992, de 6 de noviembre, respectivamente.

Artículo 4. Plazo de presentación de los modelos 202 y 222.

La presentación de los modelos 202 y 222 aprobados en la presente orden foral se efectuará durante los primeros veinte días naturales de los meses de abril, octubre y diciembre de cada año natural.

Los vencimientos de plazo que coincidan con un día inhábil se entenderán trasladados al primer día hábil inmediato siguiente.

Artículo 5. Modalidades de presentación y formas de ingreso de los modelos 202 y 222.

1. Los modelos 202 y 222 aprobados en la presente orden foral únicamente podrán presentarse por vía telemática.

La presentación por vía telemática se llevará a cabo mediante la transmisión del formulario electrónico del modelo que corresponda, debidamente cumplimentado. Los formularios electrónicos de los modelos 202 y 222 se encontrarán disponibles en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El acceso y transmisión del formulario se llevará a cabo con arreglo a lo previsto en los artículos 2 y 3 de la Orden Foral 1/2016, de 4 de enero, por la que se regula la obligación de relacionarse con la Administración tributaria foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por medios electrónicos.

A estos efectos, los presentadores de los modelos 202 y 222 acreditarán su identidad mediante certificado de firma electrónica o, en su caso, clave operativa emitida de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la administración foral, y en la orden foral reguladora de la clave operativa emitida por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. El ingreso del pago fraccionado resultante de los modelos 202 y 222 se realizará con arreglo a lo previsto en el artículo

takoari jarraituz egingo da, hau da, bankutik helbideratuta edo, bestela, ordainketa-pasabidearen bitartez.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrrik gabe geratzen dira foru agindu honekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, abuztuaren 12ko 714/2010 Foru Agindua, araudi erkidera bildutako subjektu pasiboek sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatuak egiteko erabili beharreko 202, eta 222 ereduak onartzen dituenak.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2016ko abenduaren 1etik aurrera aurkeztekoak diren aitortzen izango du eragina.

Donostia, 2016ko azaroaren 16a.—Jabier Larrañaga Garmendia, Ogasuna eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (7979)

4 de la Orden Foral 1/2016 citada anteriormente, mediante domiciliación bancaria o, en su caso, a través de la pasarela de pagos.

Disposición derogatoria.

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en la presente orden foral y, en particular, la Orden Foral 714/2010, de 12 de agosto, por la que se aprueban los modelos 202 y 222 de pagos fraccionados del Impuesto sobre Sociedades para aquellos sujetos pasivos sometidos a normativa común.

Disposición final.

La presente orden foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y surtirá efectos para las declaraciones a presentar a partir del 1 de diciembre de 2016.

San Sebastián, a 16 de noviembre de 2016.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Jabier Larrañaga Garmendia. (7979)

I. ERANSKINA

|

ANEXO I

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza Departamentua



Diputación Foral de Gipuzkoa

Departamento de Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna

PAGO FRACCIONADO

ORDAINKETA ZATIKATUA

Impuesto sobre Sociedades / Sozietate gaineko zerga

Impuesto sobre la Renta de no Residentes/Ez egoiliarren errentaren gaineko zerga

Ejercicio / Ekitaldia

Período / Zergaldia

Modelo

202

Eredua

NIF / IFZ

Apellidos y nombre o Razón social / Sozietate izena

Liquidación / Likidazioa

Fecha de inicio del período impositivo / Zergaldiaren hasiera data

Porcentaje del volumen de operaciones en el TH de Gipuzkoa / Gipuzkoako LH-ari dagokion egozpen portzentajea

Cuota a ingresar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa / Gipuzkoako Lurralde Historikoan ordaindu beharreko kuota

Intereses de demora / Berandutza interesak

Ingreso a cuenta / Konturako ordainketa

Líquido a ingresar / Ordaindu beharreko likidoa

01

02

03

04

05

06

TOTAL A INGRESAR / ORDAINTZERA GUZTIRA

Domiciliación / Helbideratzea

Código IBAN / IBAN kodea

Fecha y número de envío / Data eta bidalketa zenbakia

Sello electrónico de la Hacienda Foral / Foru Ogasunaren zigilu elektronikoa

II. ERANSKINA

ANEXO II

Gipuzkoako Foru Aldundia Ogasun eta Finantza Departamentua  Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.eus/ogasuna	PAGO FRACCIONADO ORDAINKETA ZATIKATUA Impuesto sobre Sociedades / Sozietate gaineko zerga Régimen de consolidación fiscal / Bateratze fiskaleko araudia <table border="1" style="margin: auto; width: 80%;"> <tr> <td style="width: 50%; padding: 2px;">Ejercicio / Ekitaldia</td> <td style="width: 50%; padding: 2px;">Período / Zergaldia</td> </tr> </table>	Ejercicio / Ekitaldia	Período / Zergaldia	Modelo 222 Eredua
Ejercicio / Ekitaldia	Período / Zergaldia			

NIF / IFZ	Apellidos y nombre o Razón social / Sozietate izena
-----------	---

Liquidación / Likidazioa	Fecha de inicio del período impositivo / Zergaldiaren hasiera data Porcentaje del volumen de operaciones en el TH de Gipuzkoa / Gipuzkoako LH-ari dagokion egozpen portzentajea Cuota a ingresar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa / Gipuzkoako Lurralde Historikoan ordaindu beharreko kuota Intereses de demora / Berandutza interesak Ingreso a cuenta / Konturako ordainketa Líquido a ingresar / Ordaindu beharreko likidoa	<table border="1" style="width: 100%;"> <tr><td style="width: 20px;">01</td><td style="width: 100px;"></td></tr> <tr><td>02</td><td></td></tr> <tr><td>03</td><td></td></tr> <tr><td>04</td><td></td></tr> <tr><td>05</td><td></td></tr> <tr><td>06</td><td></td></tr> </table>	01		02		03		04		05		06		
01															
02															
03															
04															
05															
06															
TOTAL A INGRESAR / ORDAINTZERA GUZTIRA		<table border="1" style="width: 150px; height: 20px;"></table>													

Domiciliación / Helbideratzea	Código IBAN / IBAN kodea <table border="1" style="width: 100%; height: 20px;"></table>
-------------------------------	---

Fecha y número de envío / Data eta bidalketa zenbakia Sello electrónico de la Hacienda Foral / Foru Ogasunaren zigilu elektronikoa
--